

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko urtarrila

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. PMI konposatua

5. Sentimendu ekonomikoa

6. Enpleguaren igurikimenak

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioak zertxobait moteldu du hazkunde erritmoa.

Abenduan, urte arteko aldakuntza tasa % 1,4an kokatu zen.

2. Azken urtean erregistratu den langabeziak 2008tik izandako daturik onenak ditu.

Nabarmentzekoa da, halaber, kontratu mugagabeen gorakada handia.

3. Inflazioak moteltzen jarraitu zuen EAEn azaroan.

Energiaren prezioen jaitsierak azaltzen du indize orokorraren beherakada.

4. Enpresen konfiantza nabarmen suspertu da abenduan.

Euroaren eremuko PMI indize konposatua 49,3koa izan zen hilabete horretan.

5. Europako herrialdeen sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen urtearen amaieran.

Baina familien konfiantzak ezkortasun handia erakusten jarraitzen du.

6. Europako enpleguari buruzko igurikimenek oso onak izaten jarraitzen dute.

Eurogunean, indizea 2000. urteaz geroztik izan duen batez besteko balioa baino zazpi puntu gorago dago.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak zertxobait moteldu du hazkunde erritmoa

Gizarte Segurantzako afiliazioak apur bat moteldu zuen bere hazkunde erritmoa abenduan. Zehazkiago adierazita, hilabete horretako urte arteko tasa %1,4 izan zen, aurreko hileko %1,7aren aldean. Laugarren hiruhileko osoan, hazkundea %1,6 izan da, hirugarren hiruhilekoko batez bestekoa baino bi hamarren gutxiago. Guztira, urtearen amaieran ia milioi bat afiliazio zeuden erregistratuta.


Afiliazioaren igoera antzekoa izan da emakumeen eta gizonen artean. Lehenengo kasuan, abenduko urte arteko tasa %1,5 izan zen eta bigarrenean, berriz, %1,4. Gorakada horien ondorioz, gutxi gorabehera 479.000 emakume eta 515.000 gizon daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, 994.000 afiliazio guztira, serie historiko osoan izan den kopururik handiena baita.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


ABENDUKO AFILIAZIOA

%1,4




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioaren igoera nahiko orokorra da jardue-
ra adar nagusien artean, merkataritzan izan
ezik, afiliazioak murriztu egin baitira 2021eko
abenduarekin alderatuta. Afiliazioa galtzen du-
ten beste adar batzuk finantza jarduerak eta
lehen sektorea dira. Kontrako muturrean,

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



manufaktura industrien bilakaera ona nabar-
mentzen da, haien afiliazio kopurua 2.000 bai-
no zertxobait gehiago hazi baita. Esanguratsua
da, halaber, jarduera profesionaletan eta osta-
laritzan lortutako hazkundera, beste adar nagusi
batzuen artean.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2021eko abendua	2022ko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	980.022	994.077	14.055
Industria manufakturagileak	169.893	171.980	2.088
Merkataritza	136.897	135.965	-932
Osasun arloko jarduera	111.418	113.007	1.589
Hezkuntza	79.058	80.338	1.280
Administrazio jarduerak	68.409	68.588	180
Ostalaritza	65.650	67.431	1.781
Lanbide jarduerak	59.145	61.044	1.899
Eraikuntza	57.154	58.183	1.029
Administrazio publikoa	49.517	50.992	1.474
Garraioa	43.175	44.633	1.459
Etxeko langileak	28.987	29.035	48
Bestelako zerbitzuak	27.128	27.273	144
Informazioa eta komunikazioa	24.500	25.676	1.177
Jarduera artistikoak	17.846	18.892	1.046
Finantza jarduerak	16.941	16.815	-127
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.355	11.250	-105
Ur horniketa	6.536	6.471	-64
Higiezin jarduerak	4.194	4.290	96
Energia horniketak	1.589	1.600	11
Erauzketa industriak	553	535	-18
Lurraldez kanpoko erakundeak	77	77	0

Iturria: Gizarte Segurantza.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Azken urtean erregistratu den langabeziak 2008tik izandako daturik onenak ditu

Aurtengo azken hilabeteen 110.798 langabe zeuden, 2008tik, hau da, finantza krisia hasi aurretik, abendu batean jaso den kopururik txikiena baita, eta hori guztia, inflazio arazoak, Ukrainako gatazka belikoa eta energia hornidurarik eza pairatu arren. Egia da urteko zenbaketan izandako jaitsiera 2021ean erregistratutakoa baino txikiagoa izan dela (-%7,8 eta -%9,2, hu-

rrenez hurren), baina beherakada nabarmena izan zen. Era berean, lan erreformak eragindako kontratazio mugagabearen errekor historikoa nabarmendu behar da. Zehatz-mehatz adierazita, 2022an ia 200.000 kontratu mugagabe sinatu ziren, guztizkoaren %24,5eko pisua lortuz, eta 2021ean, azken erreformaren aurretik, %9,3 baino ez ziren.


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


ABENDUA

-%3,5




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA. GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. ATZERRITARAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko aldietan bezala, erregistratutako langabeziaren bilakaeraren joerak nahiko antzekoak izan ziren lurraldeei, adin tarteei eta sexuari dagokienez. Aitzitik, ez zen egoera bera gertatu biztanleria langabeak jarduera sektorearen arabera izan zuen bilakaerarekin; izan ere, indus-

triaren sektorean (-%14,4) eta baita eraikuntzan ere (-%16,7) jaitsierak oso nabarmenak izan ziren, baina zerbitzuen sektorean urte arteko langabezia tasa ez zen murriztu eta zertxobait igo egin zen (%1,1).

LANGABEAK

	2021eko abendua	2022ko abendua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	114.845	110.798	-4.047
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.414	19.000	-414
Bizkaia	64.878	62.361	-2.517
Gipuzkoa	30.553	29.437	-1.116
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	51.231	47.845	-3.386
Emakumeak	63.614	62.953	-661
25 urtetik beherakoak	8.818	8.221	-597
25 urte baino gehiago dutenak	106.027	102.577	-3.450
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.632	2.179	-453
Industria	13.708	11.738	-1.970
Eraikuntza	7.717	6.428	-1.289
Zerbitzuak	76.568	77.420	852
Lehenago lan egin dutenak	100.625	97.765	-2.860
Lehenago lan egin ez dutenak	14.220	13.033	-1.187
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARAK			
Langabe atzerritarrak	18.561	18.682	121


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Inflazioak moteltzen jarraitu zuen EAEn azaroan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



KPIak lau hilabete egin ditu beherantz, eta %6,5ean kokatu da, hots, urrian baino lau hamarren beherago, energiaren prezioen beheranzko bilakaeran oinarrituta. Hori horrela izanda, ekainean %10eko tasak gainditu ondoren, inflazioa moteltzen hasi zen abuztuan, elikagaiek oraindik erregistro oso altuak erakutsi arren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko azaroa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	6,5	6,5
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	6,1	4,9
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	14,6	2,3
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	4,9	1,1
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,6	1,5
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	7,6	1,6
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	12,6	1,2
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	3,0	0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Dolarrek upeleko



GASAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



Lehen ere adierazi den bezala, KPIaren jaitsiera elektrizitatearen eta erregaien prezioen apaltzeak eragin zuen. Faktura elektrikoari dagokionez, tope iberikoa deiturikoak mesede egin dio, eta gasolinen prezioen igoera, berriz, geldiarazi egin da gasolindegietan 20 zentimo jaitsi direlako. Era berean, erregaien prezioak beherantz bultzatu zituen beste inguruabar bat petrolioaren prezioen bilakaera bera izan zen. Zehazki, Brent upelaren salneurria 83 dolarretik zertxo-

bait gorago kokatu da, azaroan baino %10,4 gutxiago. Horregatik, KPIaren moderazioan eragin handiena izan zuten taldeak etxebizitza eta garraioa izan ziren. Lehen, argiaren faktura faktore erabakigarria denez, puntu bat eta sei hamarren murriztu ahal izan zen, aurreko hilean markatutako %1,8tik azaroko %0,2ra. Bestalde, garraioak, erregistro altuetan mantentzen den arren, %7,4ra jaitsi zuen tasa, erregaien merkatzearen ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko azaroa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	6,5	6,8	10,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	15,0	15,3	16,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,8	4,1	4,6
Jantziak eta oinetakoak	-0,1	0,0	3,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	0,2	1,0	20,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	8,2	8,3	8,6
Osasuna	0,6	1,2	1,7
Garraioa	7,4	7,7	8,7
Komunikazioak	-2,0	-2,0	-1,0
Aisia eta kultura	3,6	3,2	4,7
Hezkuntza	2,0	1,5	4,1
Jatetxeak eta hotelak	6,9	7,6	8,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,5	4,3	4,1


Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Enpresen konfiantza nabarmen suspertu da abenduan

PMI KONPOSATUA.
EUROGUNEA

2022KO ABENDUA
49,3


Abenduan, euroguneko PMI konposatuak hobe-kuntza nabarmena izan zuen aurreko hilabetearen aldean, azaroko 47,8tik 49,3ko mailara igaro baitzen, azken bost hilabeteetako daturik altuena baita. Hala ere, oraindik 50 puntutik behera dagoenez, euroaren eremuko jardura ekonomikoa uzkuertzen ari dela ulertu behar da, erritmo ez oso esanguratsuan bada ere. Europar Batasunaren kasuan, indizea 49,2ra igo da.




Manufakturen industriak izan zuen berriro ere narriadurarik handiena hilabete horretan, baina zerbitzuen jarduerak ere behera egiten jarraitu zuen, nahiz eta oso modu marjinalan, indizea 49,8 puntutan kokatu baitzen. Oro har, enpresak kezkatuta daude energia merkatuagatik, inflazio handiagatik eta atzeraldi arriskuagatik. Hala eta guztiz ere, enpleguak gora egin zuen berriro, eta ia bi urte oso eman ditu hazten.

PMI KONPOSATUA.
EUROPAR BATASUNA


2022KO ABENDUA
49,2



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka, konfiantzaren hobekuntza Europako herrialde nagusi guztietan nabari da, argiago Alemanian eta Italian. Lehenengo kasuan, indize konposatuak ia hiru puntu berreskuratu ditu eta 49,0ko balioa lortu du, bere maximoa sei hilabetean. Bestalde, Italiak puntu bat inguru igo du bere adierazlea, 49,6ra arte. Frantziaren kasuan, hobekuntza mugatuagoa da (lau hamarren), eta Espainian (49,9), ordea, ia hedapen eremura iristea lortu da, zerbitzuen jarduerak izan duten hobekuntzari esker (51,6). Azkenik, Erresuma Batuk aipatutako herrialdeen antzeko irudia eman zuen, eta orain 49,0koa du indizea.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. ITALIA



PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



Iturria: Markit



SENTIMENDU EKONOMIKOA


Europako herrialdeen sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen urtearen amaieran

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2022KO ABENDUA

95,8

Abenduan, euroguneko sentimendu ekonomikoaren adierazleak gora egin zuen berriro, eta 95,8 puntutan kokatu zen, aurreko hiru hilabeteetako datuen gainetik. Hala eta guztiz ere, azken hogeita bi urteetako batez besteko baliorearen azpitik dago oraindik, 100. mailan baita go batez besteko hori. Beraz, oraindik nolabaiteko ezkortasuna dago ekonomian, familien konfiantzan bereziki agertzen dena. Hain zuzen




ere, industria, eraikuntza eta txikizkako merkataritza beren batez besteko historikoetakoak baino posizio hobean daude, eta, aldi berean, zerbitzuak hamarren gutxi batzuk baino ez dira urruntzen beren batez bestekotik, eta azaroko datuarekin alderatuta gehien hobetu den sektorea da. Egoera antzekoa da Europar Batasunean, nahiz eta eremu horretako maila (94,2) baxuagoa izan.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2022KO ABENDUA

94,2




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeka, joera kontrajarriak hautematen dira Alemanian eta Frantzian. Lehen herrialdean, indizeak bi puntu egin du hobera abendu-
an, eta 94,6ra iritsi da. Hobekuntzaren gakoak zerbitzuen susperraldian, familien konfiantzan eta txikizkako merkataritzan daude. Hala eta guztiz ere, industria eta eraikuntza bakarrik daude batez besteko historikoen gainetik. Frantziaren kasuan, puntu bat baino gehiago okertu da bertako egoera, joera negatiboa are gehiago luzatuz.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Gainerako herrialde garrantzitsuen artean, Italiak bizi duen une ona nabarmentzekoa da, bere batez bestekoaren gainetik kokatzea lortzen baitu (100,3), zerbitzuen eta eraikuntzaren hobekuntzari esker. Halaber, familien konfiantza berreskuratzen ari dela ikusten da. Azkenik, Espainian hobekuntza bi puntutara hurbildu da, eta adierazlea 98,4ra iritsi da. Eraikuntzak bere une ona sendotu du, eta industria eta txikizkako merkataritza, berriz, hiru puntu inguru hobetu dira.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.




ENPLEGU IGURIKIMENAK

Europako enpleguari buruzko igurikimenek oso onak izaten jarraitzen dute

ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROGUNEA

2022KO ABENDUA

107,3




Europako Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, enpleguari buruzko igurikimenak oso onak izan ziren berriro abenduan, bai eurogunean, bai Europar Batasun osoan. Lehenengo kasuan, espektatiben indizea 107,3koa izan zen, aurreko datua berdinduta; Europar Batasunean, berriz, datua 105,9koa izan zen, azaroan lortutako balioa baino hamarren batzuk txikiagoa.

Pandemiaren ondorengo susperraldi ekonomikoaren ezaugarrietako bat lanpostuen sorrera handia da, ondasunen eta zerbitzuen eskaera handia mantentzeko balio izan duena. Bada, espektatiben adierazleak iradokitzen du aldagai horrekiko baikortasun nabarmena dagoela oraindik, nahiz eta ez den iristen otsailean izandako zifra errekorretara.


ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROPAR BATASUNA

2022KO ABENDUA

105,9




ENPLEGU IGURIKIMENAK. ALEMANIA




Herrialde nagusi guztiek 100etik gorako balioak erakusten dituzte, eta, beraz, batez beste 2000. urteaz geroztik izandako igurikimenen gainetik daude kokatuta. Halaber, herrialde batzuetan igurikimenak berreskuratzeko prozesua hauteman da, uztailera (Frantzia) eta urriko (Alemania) beherakaden ondoren. Herrialde batean zein bestean, aurreikuspenak egonkortu egin dira azken hilabeteetan.

ENPLEGU IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Bestalde, Italian baikortasuna gero eta handiagoa da, eta enpleguari buruzko igurikimenek abenduan lortutako maila (109,6) azken bost hilabeteetako handiena da, eta 2022. urte osoko baikorrenetakoa. Azkenik, Espainian ere ikusten da estatistika horren bilakaera egonkorra izan dela, lau hilabete baitaramatza 103 eta 105 arteko balioekin, hilabete batetik hurrengora bitarteko aldakuntza gutxirekin.

ENPLEGU IGURIKIMENAK. ITALIA



ENPLEGU IGURIKIMENAK. ESPAINIA



Iturria: Europako Batzordea.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-9,6	5,9	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8
Barneko azken kontsumoa	-8,9	5,2	2,9	3,8	2,6	1,5	1,7
Familien kontsumoa	-12,1	5,6	2,5	4,0	3,2	3,0	2,4
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,9	4,4	3,3	0,6	-3,1	-0,7
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	2,9	3,0	4,9	5,0	4,9
Barne eskaria	-9,7	5,4	2,9	3,6	3,2	2,4	2,4
Esportazioak	-15,9	12,7	13,6	13,5	13,5	13,7	9,2
Inportazioak	-15,8	11,6	12,6	9,3	10,4	8,5	5,6
Lehen arloa	-16,9	21,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2	8,0
Industria eta energia	-12,2	6,1	2,4	3,7	6,5	6,1	3,8
Eraikuntza	-14,4	4,5	4,7	2,5	1,9	1,5	2,5
Zerbitzuak	-7,9	5,8	5,2	5,5	6,2	5,6	4,3
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	4,7	5,0	6,0	5,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	4,2	4,1	3,9	3,2	2,8
Enplegua	-6,2	5,9	5,1	5,0	4,9	3,7	2,0

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,9	2,4	4,3	2,2	1,7	1,7	2,8	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,6	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,5	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,4	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	5,1	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	1,5	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-6,3	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	5,2	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,6	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	4,2	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	4,2	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,2	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	4,5	1,6	Ceprede	3,6	0,6
Confebask	4,2	1,5	BBVA	3,5	0,8
Laboral kutxa	4,2	1,4			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-11,3	5,5	4,2	6,6	7,0	7,6	4,4
Kontsumo pribatua	-12,4	6,0	4,0	4,6	3,9	3,4	1,4
Kontsumo publikoa	3,5	2,9	3,1	-0,1	-0,9	-2,9	-2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,7	0,9	-3,0	-1,7	3,4	5,2	5,9
- Aktibo finko materialak	-11,1	0,1	-5,0	-3,4	2,7	4,9	5,8
- Eraikuntzan	-10,2	-3,7	-6,7	-3,9	0,0	5,4	6,3
- Ekipamendu ondasunetan	-13,3	6,3	-3,0	-3,3	6,7	4,0	5,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	-2,5	4,7	6,7	6,3	6,7	6,5	6,3
Nazio eskaria (ekarpena)	-9,1	5,2	3,8	4,9	4,1	2,5	0,9
Esportazioak	-19,9	14,4	15,2	16,4	19,9	23,7	18,8
Inportazioak	-14,9	13,9	14,3	11,6	11,9	8,7	9,0

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	4,5	0,9	Mapfre Economics	4,4	1,0
BBVA	4,4	1,0	Oxford Economics	4,5	0,8
CaixaBank	4,5	1,0	Repsol	4,3	1,0
Merkataritza ganbera	4,1	2,2	Santander	4,5	1,0
CEEM-URJC	4,6	1,0	Metyis	4,6	0,9
CEPREDE-UAM	4,5	1,5	Universidad Loyola Andalucía	4,5	1,1
CEOE	4,6	0,8	Batez bestekoa	4,5	1,1
Equipo Económico (Ee)	4,6	1,9	Gobernua (2022-10)	4,4	2,1
EthiFinance Ratings	4,4	0,9	Espainiako Bankua (2022-10)	4,5	1,4
FUNCAS	4,5	0,7	Europar Batzordea (2022-11)	4,5	1,0
ICAE-UCM	4,6	1,5	NDF (2022-10)	4,3	1,2
IEE	4,5	1,2	ELGA (2022-11)	4,7	1,3
Intermoney	4,3	1,4	Consensus Forecast (2022-12)	4,5	0,8

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
AEB	-2,8	5,9	5,0	5,7	3,7	1,8	1,9
Txina	2,0	8,1	4,9	4,0	4,8	0,4	3,9
Japonia	-4,5	1,7	1,7	0,9	0,6	1,4	1,7
Kanada	-5,1	5,0	4,3	3,9	3,2	4,7	3,9
Europar Batasuna	-5,7	5,4	4,2	5,1	5,6	4,3	2,5
Eurogunea	-6,1	5,3	3,9	4,8	5,5	4,2	2,3
Alemania	-3,7	2,6	1,8	1,2	3,5	1,7	1,3
Frantzia	-7,8	6,8	3,6	5,1	4,8	4,2	1,0
Erresuma Batua	-11,0	7,5	8,5	8,9	10,7	4,0	1,9
Italia	-9,0	6,7	4,8	6,5	6,4	5,0	2,6
Herbehereak	-3,9	4,9	5,6	6,2	6,5	5,2	3,1

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO ABENDUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	1,9	0,2	8,1	4,1	3,7	4,4
Japonia	1,5	1,3	2,4	1,8	2,6	2,5
Kanada	3,4	0,4	6,8	3,8	5,4	6,1
Europar Batasuna	3,2	0,1	8,7	6,4	—	—
Eurogunea	3,2	-0,1	8,5	6,3	6,7	7,2
Alemania	1,7	-0,7	8,3	7,0	5,3	5,6
Frantzia	2,5	0,1	5,5	4,7	7,3	7,7
Erresuma Batua	4,4	-1,0	9,0	7,3	3,8	4,5
Italia	3,7	-0,1	8,3	6,3	8,2	8,4
Espainia	4,5	0,8	8,6	4,5	—	—
Herbehereak	4,4	0,2	11,1	7,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.